**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA; HORREN BIDEZ EZ DA ONARTZEN URDANETA KIROL ELKARTEAK EUSKAL ESKUBALOI FEDERAZIOAREN APELAZIO BATZORDEAREN 2023KO OTSAILAREN 15EKO EPAIAREN KONTRA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA.**

**08/2023 espediente zk.**

**<u>AURREKARIAK</u>**

**<u>Lehenengoa</u>. –** 2023ko urtarrilaren 24an, Euskal Eskubaloi Federazioko Lehia eta Kirol Diziplinako Batzordeak adostu zuen USURBIL KEri ematea B taldeko emakume gazteen gora igotzeko fasearen antolaketa, betetzen zuelako 2022/2023 denboraldirako Lehiarako Araudian, Erregelamenduan eta Oinarrietan islatutakoa, hauxe: “*2022/2023 denboraldia antolatzeko eskabide-epea 23/01/23ko 13:00etan amaituko da*”. Data eta ekitaldi horretan bertan, aipatutako Batzordeak adostu zuen URDANETA KEk egindako eskaria atzera botatzea, Lehiarako Araudian, Erregelamenduan eta Oinarrietan araututakoa ez betetzeagatik, eskaria epez kanpo aurkeztu zuelako.

2023ko urtarrilaren 24ko akta horrek zioen ebazpen horien aurka errekurtsoa jar zitekeela Euskadiko Eskubaloi Federazioko Apelazio Batzordean. Erabaki horren berri eman zion Euskadiko Eskubaloi Federazioak URDANETA KEri urtarrilaren 24an 16:27an igorritako mezu elektroniko bidez.

2023ko urtarrilaren 24an bertan URDANETA KEk alegazioen idatzia aurkeztu zuen Euskadiko Eskubaloi Federazioko Lehia eta Kirol Diziplina Batzordeko erabakiaren aurka, eta subsidiarioki, alegazio horiek artatzen ez baziren, idatzia apelazioko errekurtso izateko.

2023ko otsailaren 7an URDANETA KEk errekurtsoa aurkeztu zuen Euskadiko Eskubaloi Federazioko Apelazio Batzordean.

2023ko otsailaren 15ean Euskadiko Eskubaloi Federazioko Apelazio Batzordeak URDANETA KEk aurkeztutako errekurtsoa atzera bota zuen, horretarako eskumenik ez duela uste zuelako errekurtsoaren gaia kontuan izanda, eta 15 egun balioduneko epea eman zion errekurtsogileari Kirol Justiziako Euskal Batzordean errekurtsoa aurkezteko.

**ACUERDO DEL COMITÉ VASCO DE JUSTICIA DEPORTIVA POR EL QUE SE DECLARA LA INADMISIÓN DEL RECURSO PRESENTADO POR EL CLUB DE DEPORTIVO URDANETA, CONTRA EL FALLO DEL COMITÉ DE APELACIÓN DE LA FEDERACIÓN VASCA DE BALONMANO DE 15 DE FEBRERO DE 2023.**

**Expediente nº 08/2023**

**<u>ANTECEDENTES DE HECHO</u>**

**<u>Primero</u>. –** Con fecha 24 enero de 2023, el Comité de Competición y Disciplina Deportiva de la Federación Vasca de Balonmano acordó, conceder al Club USURBIL K.E. la organización de la fase de promoción juvenil femenina del grupo B al cumplir lo reflejado en la Normativa, Reglamentación y Bases de Competiciones para la temporada 2022/2023 (En lo sucesivo NOREBA), que indica que “*El plazo de solicitud de organización para la temporada 2022/2023 finalizara el 23/01/23 a las 13:00 horas*”. En esa misma fecha y acto el citado Comité acordó desestimar la petición del CD URDANETA por no cumplir lo regulado en la NOREBA al entender que había presentado la solicitud fuera de plazo.

La citada acta de 24 de enero de 2023, indicaba que contra las citadas resoluciones podría interponerse recurso ante el Comité de apelación de la Federación Vasca de Balonmano. Esta decisión fue comunicada por la Federación Vasca de Balonmano al CD URDANETA mediante correo electrónico el 24 de enero a las 16:27 horas.

El mismo 24 de enero de 2023 el CD URDANETA presento escrito de alegaciones a la decisión del Comité de Competición y Disciplina Deportiva de la Federación Vasca de Balonmano y subsidiariamente en caso de no ser atendidas las alegaciones, su escrito fuera atendido como recurso de apelación.

Con fecha 7 de febrero de 2023 el CD URDANETA presento recurso ante el Comité de Apelación de la Federación Vasca de Balonmano.

Con fecha 15 de febrero de 2023 el Comité de Apelación de la Federación Vasca de Balonmano dictó resolución inadmitiendo el recurso interpuesto por el desestimando el recurso interpuesto por el CD URDANETA al entender que no tiene competencia para ello atendiendo a la materia del recurso, otorgando un plazo de 15 días hábiles al recurrente

Este documento es una representación del original disponible a través del localizador y la sede electrónica indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako lokalizatzailearen eta egoitza elektronikoaren bidez eskuragarri dagoena.

URDANETA KEk 2023ko martxoaren 8an aurkeztu zuen apelazio-errekurtsoa Kirol Justiziako Euskal Batzordean (aurrerantzean, KJEB) eta eskatu zuen "*Euskal Eskubaloi Federazioko lehia eta kirol diziplinako batzordeak 2023ko urtarrilaren 24ko 22/22-23 zenbakidun aktan hartutako ebazpena atzera botatzeko 7. puntuan, emakume gazteen promozioa; ezgai aitortzen du erabaki hori hartzeko eta, era berean, idatzi honetan jasotako alegazioen arabera, aitor dadila Urdaneta izan behar zela B taldeko sektorearen antolatzailea, aginduzko arauak baitira, Zuzenbidean dituen ondorio guztiekin*".

**Bigarrena.** Bigarrena.- KJEBk errekurtso hori izapidetzea onartu zuen, eta espedientea eskatu zion Euskal Eskubaloi Federazioari. Horrekin batera, alegazioak egitea ahalbidetu, eta egokitzat jotzen zituen froga-eginbideak aurkezteko aukera eman zion.

Euskal Eskubaloi Federazioak errekerimendua bete zuen 2023ko apirilaren 17an.

**Hirugarrena. -** Era berean, azken faseko elkarte partaideei audientzia eman zitzaien, hasiera batean USURBIL KEri antolatzaile gisa eta gero azken fasean parte hartzen zuten gainerako elkarteei, MECALBE EIBAR eta SAIEKO.

USURBIL KEk eta SAIEKOk alegazioak aurkeztu dituzte eta espedientean sartu dira.

Era berean, alegazioak aurkeztu aurretik, USURBIL KEk eskatu dio KJEBri errekurtsogileak aurkeztutako eranskin batzuk euskarara itzultzeko eta erantzun zaio interesduna bera izan dela prozedurako hizkuntza aukeratu duena eta Administrazioak horri buruz inolako erantzukizunik ez duela, kontuan izanda ez dagoela hirugarren batek aurkeztutako agiriak itzultzeko inolako betebehar legalik.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa**. – Euskal Eskubaloi Federazioaren Diziplina Araudiaren 59.2. artikuluaren babesean:

*"2. Apelazio Batzordeak hartutako erabakiek federazio-bidea agortuko dute eta horien aurka errekurtsoa ezarri ahal izango da Kirol Justiziako Euskal Batzordean jakinarazpena jasotzen denetik hamabost (15) egun balioduneko epean."*

para presentar Recurso ante El Comité Vasco de Justicia Deportiva.

Con fecha 8 de marzo de 2023 se ha presentado CD URDANETA recurso de apelación ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva (En lo sucesivo CVJD), solicitando que se "*Revoque la resolución adoptada por el comité de competición y disciplina deportiva de la Federación Vasca de Balonmano en el acta Nº 22/ 22-23 de 24 de enero de 2023 en su punto 7- promoción Juvenil Femenina; reconociéndolo incompetente para tomar dicha decisión, e igualmente en virtud de la alegaciones recogidas en el presente escrito se reconozca que debería haber sido Urdaneta el organizador del sector del grupo B al tratarse de normas imperativas, con todo lo que en Derecho proceda*"

**Segundo.** – Este CVJD admitió a trámite el citado recurso y solicitó el expediente a la Federación Vasca de Balonmano, confiriéndole, asimismo, trámite de alegaciones y dándole oportunidad de presentar, en su caso, las diligencias de prueba que estimase convenientes.

La Federación Vasca de Balonmano cumplió el requerimiento, el 17 de abril de 2023.

**Tercero. -** Igualmente se dio audiencia a los Clubes participantes en la fase final, en un primer momento al USURBIL K.E. en calidad de organizador, y en un segundo momento al resto de clubes participantes en la fase final el MECALBE EIBAR y el SAIEKO.

El USURBIL K.E. y el SAIEKO han presentado alegaciones que han sido incorporadas al expediente.

Igualmente, previamente a la presentación de alegaciones el USURBIL K.E. ha requerido al CVDJ la traducción al euskera de determinados anexos presentados por el recurrente, contestándole al respecto que ha sido el propio interesado el que ha elegido el idioma del procedimiento, careciendo la Administración de ninguna responsabilidad al respecto, teniendo en cuenta que no existe ninguna obligación legal de traducir los documentos aportados por un tercero.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**Primero**. – En virtud de lo dispuesto en el artículo 59.2 del Reglamento de Régimen Disciplinario de la Federación Vasca de Balonmano:

*"2. Las decisiones que adopte el Comité de Apelación agotaran la vía federativa y contra las mismas se podrá interponer Recurso ante el Comité Vasco de justicia Deportiva en el plazo de quince (15) días hábiles a contar desde su notificación"."*

Era berean, Kirol Justiziako Euskal Batzordea sortu eta arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuko 3. artikuluak honako hau dio eskumenei buruz:

***3. artikulua.–** Eskumenak.*
*Kirol Justiziako Euskal Batzordearen eskumenak honako hauek dira:*

***a)** Kirol-arloko diziplina-ahalaren titularrak diren kirol-organoen erabakien aurka jarritako errekurtsoak aztertzea eta ebaztea.*
***b)** Kirol-federazioen hauteskunde-batzordeen erabakien aurka jarritako errekurtsoak aztertzea eta ebaztea.*
***c)**Lehiaketa ofizialak bideratu, kalifikatu eta baimentzeari eta lizentziak izapidetu eta emateari dagozkien federazio-erabakien aurka jarritako errekurtso guztiak aztertzea eta ebaztea.*
***d)** Federazioen artean beren administrazio-funtzioak betetzean sor daitezkeen gatazkak aztertzea eta ebaztea.*
***e)** Batzordeak, ofizioz edo Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzaren eskariz, gorago aipatutako gaien artetik aztertu beharreko ikusten dituenak aztertzea eta ebaztea.*

**Bigarrena**. – Errekurtsoak bi gai garrantzitsu planteatzen ditu: batetik Lehiarako Araudi, Erregelamendu eta Oinarrien aldaketari buruzkoa eta bigarrena emakume gazteen gora igotzeko fasearen egoitza esleitzeari buruzkoa.

Dena dela, kontuan izanda errekurtsogileak ez duela bere garaian kautelazko etetea eskatu, eta errekurtsoa jarri zenean gora igotzeko fasea eginda zegoela, nahiz eta oinarrizko gai hori prozesuko partaideetako inork ez adierazi prozeduran zehar, errekurtsoaren xedea bere horretan geratu dela uste dugu funtsik ez duelako, ondorioz, ez da onartu.

Dena dela, interesdunak espedientean adierazitakoarekin bat etorriz, argi dago araudiak hutsuneak planteatzen dituela; hori dela eta, eragile esku-hartzaileei gomendatzen diegu hutsune horiek argitzeko beharrezko neurriak hartzeko eta gai bakoitzerako prozedura eta organo eskudunak zehazteko.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

**ERABAKITZEN DU**

**Aitortzea ez dela onartu** URDANETA KIROL ELKARTEAREN ordezkariek jarritako errekurtsoa Euskal Eskubaloi Federazioko Apelazio Batzordearen 2023ko otsailaren 15eko epaiaren aurka.

Igualmente, el artículo 3 del Decreto 310/2005, de 18 de octubre, por el que se regula el Comité Vasco de Justicia Deportiva, en relación a sus competencias indica lo siguiente:

***“Artículo 3.–** Competencias.*
*Son competencias del Comité Vasco de Justicia Deportiva las siguientes:*

***a)** El conocimiento y resolución de los recursos que se deduzcan contra los acuerdos de los órganos deportivos titulares de la potestad disciplinaria deportiva.*
***b)** El conocimiento y resolución de los recursos que se deduzcan contra los acuerdos de las juntas electorales de las federaciones deportivas.*
***c)** El conocimiento y resolución de cualesquiera recursos contra acuerdos federativos relativos a la ordenación, calificación y autorización de competiciones oficiales y a la tramitación y emisión de licencias.*
***d)** El conocimiento y resolución de los conflictos que se puedan suscitar entre las federaciones en el ejercicio de sus funciones de carácter administrativo.*
***e)** El conocimiento y resolución de cuantas cuestiones sobre las materias precedentes estime tratar de oficio o a instancia de la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco*

**Segundo**. – El recurso plantea 2 cuestiones relevantes: la primera sobre la modificación de la NOREBA y la segunda cuestión es la relativa a la adjudicación de la sede de la promoción de ascenso juvenil femenina.

No obstante, teniendo en cuenta que el recurrente no solicito en su día la suspensión cautelar, y la fase de promoción ya se había celebrado en el momento de interponer el recuro, cuestión básica que no ha puesto de manifiesto a lo largo del procedimiento por ninguno de los intervinientes en el proceso, entendemos que el objeto del recurso ha decaído careciendo de fundamento, por lo que procede su inadmisión.

No obstante, de conformidad con lo manifestado por los interesados en el expediente, queda claro que la normativa plantea determinadas lagunas, por lo que recomendamos a los agentes intervinientes adoptar las medidas necesarias para clarificarlas y determinar los procedimientos y órganos competentes para cada materia.

Por todo ello, este Comité Vasco de Justicia Deportiva

**ACUERDA**

**Declarar la inadmisión** recurso interpuesto por los representantes de CLUB DEPORTIVO URDANETA contra la 15 de febrero de 2023 el Comité de Apelación de la Federación Vasca de Balonmano.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dezakete Kirol Justiziako Euskal Batzordean, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat etorriz.

El presente acuerdo agota la vía administrativa y contra el mismo las personas interesadas pueden interponer recurso potestativo de reposición ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la notificación, o interponer el recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Bilbao en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente al de su notificación, de conformidad con lo establecido en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 17a
En Vitoria-Gasteiz, a 17 de mayo de 2023

OLATZ BOLINAGA MALLAVIABARRENA
Kirol Justiziako Euskal Batzordearen presidentea
Presidenta del Comité Vasco de Justicia Deportiva